

## Jende Xumea taldeetako gazte boluntarioen proiektuak 2019

### 1. Malvinas Argentinas proiektua (uztailak 13 – abuztuak 13)

Zaragozako Jende Xumea taldeak eraman du aurrera proiektu hau, 9 gaztek eta Carmelo Oteo Anaiak hain zuzen ere. Buenos Airesen egun batzuk igaro ondoren, Córdoba hirian lur hartu eta Malvina Argentinasera iritsi ziren hilaren 13an, larunbata.



Asteartean Valle Hermoso neguko koloniara jo zuten, ostirala arte. Hau ikasketa kolonia bat da eta neguko opor bukaeran eramaten da aurrera. Helburu nagusia arazo gehien dituzten ikasgaietan neska-mutilei laguntza ematea da eta batez ere, etxean ez duten antolaketa-erreferente bat aurkitzea. Kolonian parte hartzen dutenek kontzentrazio nahiz ezagutza arazoak izaten dituzte, baina askok jarrera arazoak ere badituzte. “Hori da egin dugun aparteko

lana, beraiek konturatu gabe. Eta guri gehien bete gaituen zeregina izan da”. Esperientzia horren bitartez haur, gazte eta irakasleekin harremanak izan zituzten, beraien errealitatea ezagutuz.

Malvinasera igandean bueltatu ziren eta astlehenean bilera eta aurkezpenekin hasi ziren. Haur, lehen eta bigarren hezkuntzatik zeregin desberdinetarako ordutegi eta proiektuak proposatu zizkioten boluntarioei. Informazio guzti honekin antolatu ziren boluntarioak eta zeregin guztiak betetzeko banatu ziren beraien artean.



Beren betebeharra hezkuntza maila desberdinetan laguntzea izan zen batez ere. “Oso atsegina da geuregan eta haurrengan sortzen den aurrerapena ikustea. Oso atsegina da gure lana irribarre edo besarkada batekin saritua dela ikustea eta nola hurrek guk egiten dugun edozer eskertzen dutela ikustea”. Ikasgeletan emandako

laguntzaz gain, ginkanak eta askariak antolatzeke aukera ere izan zuten auzoko plazan. Enparantzan egon ziren haur, ama eta guztien irribarreak eraman zituzten etxera. “Plazer bat da hain ongi hartuak sentitzea, hain urrutitik gatozela kontutan hartuta”.



Azkeneko astetan Gazteen Etxearekin eta auzoarekin proiektu bat aurrera eramatea pentsatu zuten. Buruari buelta asko eman ondoren, etxe baten aurrealdea margotzea erabaki zuten eta baita Gazteen Etxeko muralean ondorengo esaldia idaztea ere: “Los de después si entendimos”. Bi marrazketak asteburuan burutu zituzten.



Despedida ofizial bezala, askari bat antolatu zen boluntarioen etxean eta bertara esperientzia hura errealitate bihurtzeko lagundu zuten guztiak gonbidatuak izan ziren. Boluntarioek patata tortilla eta torradak preparatu zituzten. “Hainbeste esker-on sentitzea, guztiakin pixkanaka lortu dugun konfiantza, edozein gaien inguruko elkarrizketak; etxetik banatzen gaituzten 10.000 km-ak ahaztea eragiten dituzten momentuak dira, leku honetan etxearen beroa beti sentituko dugula gogorarazten digutenak”.

## 2. Santa Cruz de la Sierra – Boliviako proiektua (uztailak 14-abuztuak 19)

Andoingo Jende Xumea taldeak eraman du aurrera proiektu hau: 10 gazte eta 2 laguntzailek (Luis Escudero eta Juan Andrés Fernández).



Uztailaren 15ean iritsi ziren Santa Cruzera eta Umezurtzen Zentroan geratu ziren. Ekintzak aurrera eramateko bi taldetan banatu ziren: batzuk Umezurtzean geratzen ziren bitartean, besteak Plataforma Solidaria zentrorra joaten ziren.

Umezurtzean boluntarioek nerabeei lagundu diete ikasketetan eta baita inprentan ere, bertako lanei laguntza emanez.

Plataforma Solidarioan aldiz, ekintza desberdinetan hartu dute parte boluntarioek: sukaldean lagundu, jangela sozialean lagundu, 2-6 urteko haurren hezitzaileei lagundu edo ikasleei eskolako lanetan lagundu. Eguna bukatzean, guztiak elkartzen ziren berriro Umezurtzen Zentroan afaltzeko eta eguneko nondik norakoak elkarbanatzeko.

Umezurtzean guztien ezagutza eta giro ona hasiera batetik sustatzeko, jolasak, ginkanak, ostiral gaueko zinema saioak eta uztaileko urtebetetze jaialdiak antolatu zituzten. Bestalde, pixkanaka inprenta tailerreko zereginetan praktika hartu zuten: hurrengo kurtsoko agenden koadernaketa, koaderno azalak egitea, dokumentuak liburuetan eraldatzea, etab.

Plataforma Solidarioari dagokionez, beste hobetze ekintza batzuetan ere hartu zuten parte boluntarioek, besteak beste, liburutegia txukundu eta garbitu zuten. Gainera, azpimarratzekoak dira zentroan egin zituzten margotze lanak, bai kanpoko paretetan eta baita ere jangela eta ikasgeletan.



Bestalde, boluntarioek, langileek eta kideek Santa Cruzeko periferia ezagutzeko tailer batean hartu zuten parte, harremanak sendotu eta hausnarketa bultzatzeko helburuarekin. Gainera, “Nuevo Amanecer” zentroa bisitatzeko aukera ere izan zuten eta desgaitasunak dituzten pertsonen eskola mailan laguntzeko parada ere izan zuten.

Abuztuaren 6ko astean Boliviako independentziaren urteurrena dela eta antolatutako jaietan parte hartu zuten boluntarioek. Umezurtzean dantzak, kantuak eta emanaldiak egon ziren eta Plataforma Solidarioan aldiz txikienek danborrak jo zituzten.

Azkeneko igandean zerbait desberdina egitea nahi izan zuten eta Umezurtzegiko gazteekin txango txiki bat antolatu zuten antzinako kulturari apur bat gehiago murgiltzeko. Goizean,



Samaipata Gotorlekuan paseo bat eman zuten eta arratsaldean kobazuloetako ur-jauzietan bainu bat hartzeko aukera izan zuten. Bata bestearen konpainiarekin eta ikuspegi eder batzuekin disfrutatzeko aukera polita izan zen.

Azkeneko kroniketako batean ondorengo hau idatzi zuten: "Gure bidaia laster amaituko da eta uste baino lehen etxean aurkituko gara berriro. Hori dela-eta, minutu bakoitza ahalik eta gehien aprobetxatzea nahi dugu, hilabete honetan zera ikasi baitugu, oso zortedunak garela hemen bizitzeko aukera dugulako".

